


# MARTUTENE

## Auzoa egin dezagun!

### ¡Hagamos barrio!



Udalak auzoetan, herritarrok eguneroko bizitza egiten dugun guneetan, izan nahi du, elkarlana errealitate bihurtzeko, aktibitatea sustatu komunitatearen mesederako eta partaidetza eraldatzailea erdiesteko.



Horretarako jarri zen abian **Auzo eta herriak Donostia Indartzen!** ekimena.

Nola ikusten dugu gure auzoa? Zer lehentasun ikusten ditugu? Zer proposatzen dugu interes kolektiboari erantzuteko? Galdera hauen inguruan lan egin dugu auzo eta herri bakoitzeko batzarretan parte hartu duten pertsonekin. Hauek argazki bateratu bat osatu, proposamen zehatzak egin eta lehentasunak markatu dituzte.

Azken hilabete hauetan proposamen hauek aztertu eta erantzuna emateko udal teknikari eta arduradun politikoak lanean egon dira.

**Jada informazio hau ezagutu dezakezu!**

## Urumea Ibaia Bideratzea

### Proposamena

*Ibaiaren gaiari buruzko proposamenak:*

- *Urumea ibaiak Martutenen mehatxu bat izateari utz diezaiola eta, haren balio naturalak babestuz, gozamen eta aisialdirako gune bihurtu dadila, auzoko ondare naturala eta eraikia babestuko duten irtenbideak aukeratuz.*
- *Irtenbide desberdinak hartzea proposatzen da epe motz, ertain eta luzera:*
  - *Ibaiaren ibilgua eta bazterrak garbitzea (epe motzera).*
  - *Aldian behin garbitzeko konpromisoa hartzea (etengabea).*
  - *Martuteneko zubia ordezkatzeko (epe motzera).*
  - *Proiektuan urpean gera daitezkeen eremu gisa agertzen diren nekazaritzaren ustiapenerako guneen kalifikazioa berriz planteatzea, horiek babesteko asmotan.*
  - *Donostiako Udalak administrazioen arteko bitartekaritza-lana egingo duela hitzemandako proiektua premiaz jorratu dadin (etengabea).*
  - *Ibaiaren bideratze-proiektu osoa (epe luzera).*

### Erantzuna

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren etendura altxa egin dute Portutxo eta Sarroetari dagokienez. Plan horren bidez ahalko da Portutxo eta Sarroeta eremuak garatu, hor dagoen eraikina eta bi eremu horiek egokitu, eta eraikinaren eta Urumeako ibaiertzen

arteko eremua hobetu.

Ibaia bideratzeari buruz URAk (Uraren Euskal Agentziak) egindako proposamena aztertzen ari gara. Sarroeta, Portutxo eta Trinkete garatzeko hirigintza-proposamenekin koordinatu nahi dugu URAren proposamena, saihestu nahi baitugu ibaiaren ibilgua oztopatuko duten eta ibaiaren nahiz ibaiertzaren arteko lotura hautsi dezaketen hormak eraikitzea (Sarroeta tartean ibaiertzak antolatzeke proposamena, eta abar).

Horrez gain, hainbat jarduera aurreikusi dira ibilguak orain baino hobe har ditzan ur handiak. Jarduera horiek aztertzen ari gara, eta horiek gauzatzeko lehenesten ari gara lursail handien beharra ez duten ekintzak (zubiak ordezkatzeko, eta abar).

Horrez gain, bidegorriak nahiz auzoaren ekipamendutzat har daitezkeen beste egitura batzuk kontuan hartu beharko dira aipatutako eremu horietako plan berezietan.



## Landa eta Nekazaritza Landa

Hirigintzako eta azpiegituren jarduera eta garapen berrien aurrean, auzoko landa- eta nekazaritza-ondarea babestu eta sustatu beharra.

### Proposamena

- *Urumearen ibarretik abiatuta, hura inguruko landa-ingurunearekin lotzen duten landa-bideak seinaleztatzea, auzoaren aisialdirako eremuaren osagarri diren neurrian.*
- *Aisialdirako eremuak sortzea (ontziralakua, egoteko lekuak, ibai-bazterreko pasealekua...).*
- *Aniztasunaren, belle epoque garaia eta abarren gaikako ibilbideak sortzea.*
- *Harana hiriaren nekazaritza-hornidurarako gune gisa aitortu eta katalogatzea, hura babesteko.*
- *Inguruko baserrien multzoa antzinako bizimoduaren eta arkitekturaren adierazgarri gisa identifikatu, katalogatu eta berreskuratzea.*
- *Jabetza publikokoa den Benartegi baserria bereziki gailentzen da elementu adierazgarri gisa.*

### Erantzuna

Urumea ibaiaren eskuinaldea, Sarroeta eremuaren aurrean aurkitzen dena, berdegunetzat hartuko da. Horrela, auzoaren eta ibaiaren arteko lotura hobetuko da.

Ibaiaren ezker aldean, Martutene hegoaldeko meandroan aurkitzen diren nekazaritza-lurrak (Almandoz baserria, eta abar) bere horretan utz daitezke.

Landa-baserri inguruan geratu diren baserriak mantenduko dira. Hala ere, aztertu beharko litzateke ea badagoen horiek berritzeko aukerarik, ondarea berritzeko administrazioek ematen dituen diru-laguntzen bidez.



## Egokipena/Okendotegi Garbitasuna

### Proposamena

*Okendotegiko bideetan tona-kopurua mugatzea, errepidea konpontzea, eta kale eta bide-bazterrak garbitzea, auzoko landa-eremuaren zati garrantzitsua den neurrian. AHTaren ibilbideetan, Astigarraga aldera irteteko auzo honen premiak aintzat hartzea.*

### Erantzuna

Okendotegi bidea obra handiak jasaten ari da, eta horren ondorioz, garbiketa-zerbitzua ez da batere eraginkorra; dena den, obra horien arduradunei

dagokie ingurunea behar bezala mantentzea.

AHTren ibilbideari dagokionez, ADIFek, hau da, administrazio eskudunak (Sustapen Ministerioa), oraindik ez dio erantzun bilera bat egitearen eskakizunari, horrela, exekutiboak behin betiko jakinarazi diezagun AHT Donostian sartzeari eta hark eragingo dituen ondorioei buruz hartutako erabakia.

## AHT

AHTaren behin betiko ibilbidea ere auzoa guztiz baldintzatzen duen egiturazko gai bat da.

### Proposamena

- *Informazio argia eta benetakoa ematea sortzen doan heinean.*
- *Solaskide eta komunikatzeko kanal bakar eta eraginkor bat izendatzea.*

### Erantzuna

Udalaren asmoa da ahal dugun arte bermatzea auzo, eragile zein herritarren informazio eskubidea. Berdin jokatu nahi dugu gai honen inguruan ere, kaltetuei informazioa emanez eta herritarrei ahalik eta gehien lagunduz, egin behar dituzten urratsetan.

AHT azpiegituraren inguruan, hainbat bilera egin ditugu, Plan Orokorreko bulegoko arduradunekin batera, kaltetutako auzotarrei informazioa emateko.

Baina, kasu honetan, informazio iturria ez da Donostiako Udala, azpiegitura horren proiektua beste instituzio batzuek kudeatzen dutenez gero. Hau da, instituzio horien esku dago proiektuari buruzko informazio zehatza.

Dena den, Udal Gobernu honen asmoa da, batetik, informazioa eskuratzen dugun heinean herritarrei ematea eta, bestetik, informazio hori iristen ez bazaigu, dagokien erakundeei eskatzea; kasu honetan Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Administrazioari.



## Martutene Pasealekuko Birmoldaketa

Une honetan, ibilgailuek ez dute Martuteneko pasealekuaren erabilera egokia egiten (oso azkar igarotzen dira) eta errepidearen gaur egungo egoerak bitan zatitzen du auzoa.

### Proposamena

Bidea herriko kale bihurtzea trafiko motordunaren intentsitatea eta abiadura murrizteko; izan ere, horiek Urumeako saihesbidea erabili dezakete, eta bide batez, bideak auzoan sortzen duen oztopoa ezabatu ahal izango litzateke.

Lehengoratzeta lehenbailehen eta baldintza onenetan gauzatu dadin Udalak presioa egitea.

Behin betiko proiektua egiten den bitartean, auzoa zeharkatzen duen bideak eragiten dituen ondorioak arintzen lagunduko duten epe motzerako proposatutako neurriak hartzea.

- Ibilgailu-zirkulazioaren abiadura murriztu eta kamioiak erdialdetik igaro daitezela debekatzea. Abiadura kontrolatzeko neurriak abian jartzea (arekak, radarak...), batez ere ikastolaren aurrean eta Goizueta kalean.

### Erantzuna

Udal Gobernuaren borondatea Eusko Jaurlaritza Urumea ibaiaren bideratze lanetan eta erriberetako hobekuntzan inbertsioak egin ditzan hauspotzea da, uholdeen eragin kaltegarriak zuzentzen joan daitezen. Lehentasunetako bat Martutene zubiaren eraikuntza da. Zubiaren eraikuntzak ondoren hiritartuko den bidea baldintzatuko du, zubi berriaren altuera gaur egungoa baino altuagoa izango delako (1,5-2 metro inguru).

Aipatutako obrak garatzen diren bitartean, epe motzera oinezkoen mugikortasuna hobetuko duten behin-behineko egokitzapenak eramango dira aurrera:

- Martutene auzoren sarreran, Goizueta eta “Colonia del Pilar” kaleekin bat eginda, biribilgunea sortzea. Neurri honek nabarmen jeitsiko luke abiadura.

## Urumea Autobidea

### Proposamena

Une honetan, ibilgailuek ez dute Martuteneko pasealekuaren erabilera egokia egiten (oso azkar igarotzen dira) eta errepidearen gaur egungo egoerak bitan zatitzen du auzoa.

Autobiaren ondorioak: momentu honetan, Urumeako autobiaren lanen ondorioz alde batera utzi dira proiektuan auzotarren egunerokotasunean kalte larriak eragiten dituzten hainbat elementu, honako hauek batez ere:

- Zarata (1. ingurabidean dauden dilatazio-loturek sortzen dute zarata gehien).
- Uren kanalizazioa.
- Bideen konponketa.
- Abiadura mugatzea.

Okendotegiko zubian barandak egokitzea (arriskutsua da oinezkoentzat). Autobiaren gaiaren inguruan Aldundiarekin hitz egitea gai horiei lehenbailehen aurre egiteko. Esate baterako:

- Barrera-sistemak jartzea.

## Araztegia

Araztegiak (hipikakoak) kiratsa sortzen du. Kiratsa sortzen jarraitzen du estalita dagoenean ere. Ez da bi zikloko araztegi oso bat.

### Proposamena

- Gaia bizkortu dadila, zerbait egiten ari dira momentu honetan?
- Araztegia amaitu dadila

- Bide nagusian Dbuseko paradak uztea, biribilgunean buelta emanaz, auzo barruan geratu beharrean.

2012ko Inbertsioen Planan Urumeako erriberak hobetzeko 430.000€ko partida egokitu da.

Zubiaren eraikuntzara itxaron beharko da osoko diseinu batentzako.



- Diputazioak soinu-neurketa egitea eta horren arabera neurriak abian jartzea (dilatazio-loturen zarata ezin da barrera-sistemaren bidez konpondu).

### Erantzuna

Autobia dela eta, soinu-neurketak egin ditzan eta, behar den neurrian, zarataren kontrako babes-sistemak jar ditzan eskatu diogu Foru Aldundiari. Horrez gain, ur-kanalizazioari, bideen konponketari eta abiadura mugatzeari buruz egin diren eskaerak jakinarazi dizkiogu instituzio berari.

Okendotegiko zubiko barandari dagokionez, Udalak kexakizunaren berri emango dio ADIF erakundeari (ADIF da gai horren arduraduna), egin beharreko konponketak egin ditzan.

### Erantzuna

Oraindik ez dira Añarbeko Mankomunitateak kudeatutako Loiolako Araztegiaren usaina kentzeko lanak amaitu. Lan horiek amaitzean, kiratsaren arazoa desagertu egingo dela aurreikusten dugu.



## Lorazaintza eta Kimaketak

Lorazainek ez dutela auzo osoan lan egiten antzematen da, “Colonia del Pilar”en besterik ez dute lan egiten.

**Proposamena**

- Lorezainek auzo osoan lan egin dezatela (ez Pilarreko Kolonian soilik).
- Gune jakin batzuetan zuhaitzak kimatzea (Trinkete inguruan...).

**Erantzuna**

Lorazaintza zerbitzuak udal gune publiko berde guztietan egiten du lan. Kimaketak ordea, behar diren kasuetan egiten dira, etxe edota argizatze publikoan eragozten dutenean. Kimaketen eskari zehatzei erantzuna ematen diegu, baldin eta behar errealei erantzuten badiete

Parke eta Lorategien zerbitzuak adaburuak goratu ditu 2012an.

## Gizarte Laguntza Auzoan

Auzoan ez dugu gizarte-laguntzarik eta horretarako Donostiara joan behar dugu.

Gai honetan okerrera egin dugu. Auzoan mugikortasun-arazoak dituen adineko jendea bizi da.

**Proposamena**

*Gizarte-laguntzaileak behar ditugu auzoan bertan. Baita noizean behin bada ere, astean behin...*

**Erantzuna**

Erriberetan Gizarte Zerbitzuen Zentro bat egitea aurreikusten da eta bertan Martutene, Loiola-Txomin, Erriberak eta Osinagako 23.000 biztanle inguru zainduko dira, gaur egun Errondoko Morlans eraikinean daudenak. Dena den, finantzazioa falta da dagoeneko erabilgarri dagoen lokala egokitzeko.

Gainera, bi tresna erabiltzen ditugu bizilagunengana gehiago hurbiltzeko, batik bat adineko pertsonengana edo mugikortasun-zailtasun bereziak dituztenengana hurbiltzeko.

1. Gizarte-zerbitzuen zentrorra joateko zailtasunak dituzten pertsonen kasuan, gizarte-langileak horien etxeetara joaten dira.
2. Bakarrik edo adineko pertsona batekin bizi diren eta Gizarte Zerbitzuetan inoiz izan ez diren adineko pertsonen bisita egiteko Lana Sustatzeko Programa, horien egoera baloratu eta informazioa eskaintzeko helburuarekin.

## Segurtasuna

Segurtasun faltaren pertzepzioa inportantea da. Segurtasunaren arazoa are larriagoa da Okendotegiko bidean.

Ertzaintzak eta larrialdi-zerbitzuek (anbulantziek eta abarrek) ez dute errepidea ezagutzen.

**Proposamena**

- Udaltzainen presentzia eta zaintza handiagoa, eskola-orduetan eta Okendotegiko bidean bereziki.
- Auzoan seinaleztapena hobetzea.
- Larrialdi-zerbitzuei plano eta datu kartografiko eguneratuak bidaltzea (Ertzaintzari, udaltzainei, ambulantieiei eta abarrei).



**Erantzuna**

Udaltzaingoko eta Mugikortasuneko agenteek txandaka egiten dituzte zaintza-lanak eskola-orduetan. Dena den, auzoan beren presentzia areagotzeko eskatuko zaie.

Seinaleen sistema aztertuko dugu eta hobekuntzak egingo ditugu.

Eskatu duzuen bezala, plano eguneratuak bidaliko zaizkie zerbitzu horiei, zonaldea ezagutu dezaten.



## Anbulategia

### Proposamena

*Erizaintza-zerbitzua izango duen anbulatorio bat sortzea auzoan bertan gutxieneko zerbitzuak eskaini ahal izateko.*

### Erantzuna

Halaxe da, zerbitzu publikoetarako lursailak eta lokalak jasoko dira Sarroeta eremu berriaren antolamenduan. Beste aldetik, anbulatorioa dela eta, egin duzuen eskaera Osakidetzari jakinarazteko konpromisoa hartzen dugu, Eusko Jaurlaritzak duenez osasun zerbitzuaren eskumena.

## Garbitasuna eta Hondakinak

Garbitasun-falta. Lan asko dago gaur egun dauden garbiketa-langileentzat.

Hernanin atez ateko hondakin-sistema izateak eragin egiten digu. Tamaina handiko hondakinak, esate baterako, Martutenen uzten dituzte.

Auzoan edukiontzi gutxi daude eta gaizki banatuta gainera.

### Proposamena

- Garbiketa-enpresaren eta Udalaren artean sinatutako baldintzen orria betetzea.*
- Auzoaren garbiketarako langileen kopurua handitzea.*
- Auzoko jendearekin garbiketaren gaiari buruzko kontzientziazio kanpaina bat egitea (zakurrak, birziklapena...), hau da, “nire metro koadroa nik garbituko dut” motakoa.*
- Udal-zerbitzuek (udaltzaingoak, herritarren arretarako zerbitzuak...) hondakinen eta bereziki tamaina handiko hondakinen bilketari buruzko informazio egokia eman dezatela.*
- Edukiontzien azterketa. Edukiontzi gehiago, lur azpikoak ahal izanez gero.*
- Donostian atez ateko sistema ezartzea.*
- Garbigune gehiago jartzea eta horren inguruko legea betetzea.*
- Martutenen bertan garbigune bat sortzea.*

### Erantzuna

Adierazten duzuen zonalde horretan, giza baliabide eta bitarteko mekaniko batzuk jarrita daude garbiketa egiteko, eta finkatuta dago zer maiztasunarekin garbitu. Hiri Zerbitzuetako Atalak kontrolatzen du ea

## Bertako Komertzioari Bultzakada

Donostiako merkataritzari buruzko azken azterketan auzoen arteko konparazio bat egin zen krisiari dagokionez: Martutene azaldu ere ez zen egiten. Hori da auzoaren merkataritza-errealitatea. Hirigintzari dagokionez, ingurabidearen eraginez isolatuta geratu gara eta horrek merkataritzari eragiten dio.

Ez dakigu 27. industrialdean zer egiten den eta zer dagoen.

### Proposamena

- Auzoan jarduerak antolatu daitezela jendea Martutenen bizi eta bertan kontsumitu dezan.*
- Auzoko dendariak jeneroaren araberako merkatuak antolatu ditzatela kalean.*
- Merkatari txikiei erostetxe handiekin lehiatzeko laguntzak ematea. Dendariei laguntza espezifikoa eskaintzea.*
- Garbera handitzeko proiektua ez dadila berriz agertu. Kaltegarria izango litzateke Martuteneko merkataritzarentzat.*
- Auzoan 27. industrialdea ezagutaraztea, hara iristea erraztea (autobusez...) eta seinaleztapena hobetzea.*



baliabideak ondo erabiltzen diren eta maiztasuna errespetatzen den.

Zerbitzu horrek informazio-kanpaina batzuk egin ditu zaborren eta hondakin handien bilketari buruz, eta herritarrei informazio eguneratua eman die dauden baliabideei buruz.

Edukiontzien kokapenak erabakitzeko, zonaldeko biztanleria eta kaleen egitura hartzen dira kontuan: garajeen sarrera eta irteerak, aparkalekuak, zuhaitzak, norabideak eta abar. Lurpeko edukiontziak jartzeko, lur azpian zerbitzurik badagoen hartzen da kontuan: euri urena, ur zikinena, gasarena, eta abar. Edukiontzi mota horiek zonaldean jartzeko aukera aztertu zen, baina asmoa ez zen aurrera atera, adierazitako arrazoiengatik. Gainera, lur azpiko edukiontzien mantenua konplexua eta garestia denez, erabaki da horrelakoak ez jartzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Garbiguneen zerbitzua San Marko Mankomunitateak eramaten du, eta erabaki dute eskualdean 5 garbigune jartzea. Donostiari dagokionez, bat funtzionamenduan dago Garberan, eta bigarren bat urtearen amaierarako egingo dute, Atotxa Errekaren inguruan. Epe motzean ez da garbigune gehiagorik aurreikusten Donostiako udalerrian.

### Erantzuna

Edozein jarduketa gauzatu ahal izateko, merkatariek elkarteren batean edo, horrelakorik izan ezean, fororen batean elkartu behar dute nahitaez Martuteneko merkataritzari buruzko aukerak aztertu ahal izateko.





## Konexioa (Ertain Epera)

Martutene auzoaren eta aldameneko auzoen artean ez dago konexio segururik, ezta oinarritzko udal-zerbitzuekin ere, auzoari erantzun behar dietela ulertzen bada ere, horiek auzotik kanpo baitaude (anbulatorioa, gizarte-ongizaterako oinarritzko unitatea eta abar).

Era berean, Martuteneko pasealekuak oinezkoen eta bizikleten zirkulazio lasaia galarazten du auzoan bertan.

### Proposamena

- Oro har, auzoaren mugikortasun eta azpiegituren arazo askoren konponbidea ez dago Udalaren esku. Dena den, Udalari eskatzen diogu: dagokionari bere betebeharrak bete ditzala eskatzeko eta auzoaren ordezkaria izan dadila.
- Diputazioari bidea (egoera onean) Udalaren esku uzteko eskatzea; horrela, Donostiako kale bihurtuta, hainbat hobekuntza egin ahal izango dira (tarte batzuk gutxienez, 27. industriadetik ambulatiora doana, adibidez).

## Bidegorria

Bizikletentzako konexio baten beharra.

### Proposamena

- Astigarragatik Loiolara bidegorria egitea. Osorik egiterik ez badago, gutxienez ambulatortik kartzelara egin dadila. Zalantza: Txomineneako proiektuan bidegorria aurreikusten da?
- Bidegorria trenbidearen ondotik zehar egitea (Renferen baimena beharko litzateke?); oinezkoek arrisku gutxiago izango lukete eta poligonoaren lotura saihestuko litzateke. Horrez gain, hobe litzateke gasolindegira iristean atzeko kaletik zehar joatea.
- Parketik Pilar taldera (32) aldera joateko irteeran baranda bat behar da, gutxi ikusten delako, autoak abiadura handian sartzen direlako eta haur asko ibiltzen den leku bat delako, hain zuzen ere.

### Erantzuna

Gaur egun, Bizikleta sustatzeko plana idazten ari gara hurrengo urteetarako; bertan, hirian oraindik gauzatzeko dauden bizikletentzako loturen lehentasun-analisia gaineratzen da.

Horrela, Loiola eta Martutene ibaiertzetik lotuko dituen proiektua gauzatzen ari gara. Gaur egungo galtzadako bidegorria, aldiz, Txomin Eneako urbanizazio proiektuaren barne dago.

## Irigarritasuna

Irigarritasunaren ikuspegitik, auzoko hainbat espaloi desagokiak dira.

### Proposamena

Auzoko oztopo arkitektonikoak berdintzea, lautzea (“arrasean jartzea”): eskailerak, maldak...; batez ere trenbideraino edonor iritsi ahal izan dadin. Gainera, kasu honetan nasaren altuera eta zuloa ere hartu behar dira kontuan geltokian (Renferen eskumena izango da).

### Erantzuna

Egia da etxebizitza-gune nagusi horren eta auzoaren gainerako guneen artean ez dagoela oinezkoentzako ibilbide irigarririk, “RENFERen geralekura” joateko batik bat, honako alderdi hauek erabat baldintzatzen

### Erantzuna

Eusko Jaurlaritzari Urumea ibaiaren bideratze- eta hobekuntza-lanetan lehenbailehen inbertitu dezala eskatzea da Gobernu honen asmoa, horrela, uholdeek eragindako zorigaitzoko kalteak arintzen joateko. Martuteneko zubia eraikitzea da gure lehentasunetako bat. Zubi hori eraiki ondoren, bidearen urbanizazioa egin beharko da, zubia eraikitzeko erabiliko diren kotak eta altuerak gaur egungoak baino altuagoak izango baitira (1,5etik 2 metrora). Horrenbestez, oinezkoen joan-etorriak hobetzeko behin-behineko egokitzapenak egingo dira epe motzera. Haren diseinu integrala egiteko zubia eraiki beharko da lehenengo.



baitute irigarritasun hori: Urumea ibaiaren gaineko zubiaren zabalera, galtzadak gaur egun jasaten duen trafikoa (27. poligonora eta Astigarragara doazen bideak) eta RENFERen geralekuaren kokapen altua.

Espaloi hori lursail pribatuak ukitu gabe zabaldu ahal izateko, galtzadaren izaera aldatu beharko litzateke, gaur egun bi zirkulazio-bide baititu. Aukera hori ebaluatzen ari gara, aurrekontuari dagokionez, hain zuzen ere.



## Garraio Publikoa

Autobus-zerbitzua ez da aproposa auzoan maiztasunaren, ibilbideen eta bidaien iraupenaren ikuspegitik.

### Proposamena

- Ibilbideak auzoak dituen beharretara egokitzea, eta ez hirian dauden beharretara.
- Gipuzkoako mugikortasun-txartel bakarra sortzea.
- Autobusez Antiguarekin lotura zuzena izatea, Ospitaleetatik zehar (ikasleentzat batez ere).
- Zenbait autobus zentrotik Anoetaraino gutxienez geratu gabe joan daitezela

### Erantzuna

Dbussek bere Plan Estrategikoan proposatzen du maiztasunak areagotzea eta zerbitzu berriak jartzea, baina Udalbatzak, egoera ekonomikoa dela eta, plan hori geratzea eskatu du.

Antiguako konexioari buruzko proposamena egokia dela uste dugu, baina Dbusen ahalmen ekonomikoa oztopo handia izango da. Aitzitik, erdialderako bidean geldialdi gutxiago egitea ez dugu oso bideragarri ikusten.

Testuinguru honetan, nahiz eta egia den txartel bakarra zabaldu egingo dela erabat, hala ere uste dugu Donostiako Udalak, Foru Aldundiak eta beste garraio erakundeek garraio sistema koherenteago bat zehaztu beharko genukeela, eta erdialdera zerbitzu zuzenagoak eskaini beharko genituzkeela.

## Kirol Ekipamenduak

Auzoarentzako kirol-ekipamenduen gabezia handia dago.

Martuteneko futbol-zelaia talde “profesionalek” erabiltzen dute, eta beraz, auzotarrek ezin dute erabili.

Goizueta kaleko Minifrontoiak ez du argirik eta bertan jolasten duten haurrek arrisku handia izaten dute, pilotak jasotzera errepidera irteten baitira.

### Proposamena

Auzoko jarduerak zentralizatuko dituen toki bat sortzea: kirola egiteko eta, era berean, jarduera desberdinetarako erabili ahal izan dadila (kulturaren, gizartearen eta abarren arlokoak), auzoaren premiei erantzun ahal izateko. Sortzea proposatzen den tokiaren ezaugarriak:

- Erdialdean kokatu dadila, hirigunetik gertu edo harekin lotua, eta era berean, erreferentziazko plaza bat izan dadila.
- Frontoi estali bat (Agustinoen eraikinean ekipamendu handi bat sortzea izango litzateke egokiena).
- Gaur egun, zelaiaren albo batean pixka bat txikiagoa den eta erabiltzen ez den eremu bat dago; hura erabiltzeko moduan jar daiteke egokitzen batzuk eginez gero, eta futbol-zelaia bezain handia ez izan arren, haurrek nahikoa leku izango lukete jolasean ibiltzeko.

- Argiztapen-elementuren bat eta segurtasun-sare bat instalatzea.

### Erantzuna

Martuteneko futbol-zelaia ez du inolako talde profesionalik erabiltzen; are gehiago, auzoko klub nagusietako batek kudeatzen du, Martuteneko Futbol Klubak, alegia. Auzoan gehien erabiltzen den kirol-zerbitzua izango da seguruenik. Horrez gain, auzoan dago hiriko doako pista estali eta irekirik handiena, Arantzazuko Ama Ikastolaren pista, hain zuzen. Gure ustez oso garrantzitsua da hiriko auzo guztietan inbertitzea: Txomin Enean eta Martutenen, Urumea ibaiaren jarduketak, uholdeak ez gertatzeko neurriak, Txomin Eneako babes ofizialeko etxebizitzak eta beste jarduketa puntual batzuk.

Kirol anitzeko pistarekin bizilagunen lehentasunari behar bezala erantzuten zaiola uste dugu, auzoak Arantzazuko Ama Ikastolako instalazioak eta futbol-zelaia baititu. Epe motzera alde batera uzten da frontoi bat egitearen ideia, baina ez epe ertainera.

## Kultur Etxea

Loiolako Kultur Etxearekiko mendekotasun handiegia Etxarrieneko kultur programazioa prestatzeko.

### Proposamena

Kulturako aurrekontu-partida jakin bat finkatu dadila Martutenerentzat, auzoak dituen beharrei erantzun eta Loiolak egindako ekarpenen menpe ez egoteko. Auzoan jarduerak antolatzeko autonomia izatea eta horiek Martuteneko Kultura Agenda batean jasotzea da helburua (gaur egun Loiolako agendan jasotzen baitira).

### Erantzuna

Lehenik eta behin hauxe argitu nahiko genuke: Etxarrieneko kultur programazioak menpekotasuna baino gehiago, koordinazio estua duela Loiolako Kultur Etxearekin. Etxarriene, izan ere, Gazteria Sailaren ardurapean dago eta Martuteneko ekimen soziokulturalen motorra da. Loiolako Kultur Etxeak, aldiz, ez du aparteko aurrekonturik ez Martuteneri begira, ez Txomin auzoari begira, baina, hala ere,

Loiolako Kultur Etxearen helburuetako bat bada bere programazioa zonalde horietara eramatea. Arrazoi horregatik ere funtsezkoa da koordinazioa. Amundarain liburutegiak lotura du Donostia Kulturarekin eta koordinazioa Loiolako Kultur Etxeko liburutegiari dagokio.

Martuteneko kultur programazioa ezagutzera emateari dagokionez, adierazi nahi dizuegu agendak Kultur Etxeen arabera diseinatuak daudela. Helburua da zonalde gertuko informazioa denei helaraztea, Kultur Etxeen programazio eskaintzak ahalik eta gehien hedatu daitezen. Dena den, alternatiba berriak aztertu daitezke; adibidez, web orriaren bidez.

## Kultur Ekipamendua

Auzoarentzako Gizarte Etxe edo kultur ekipamenduen gabezia.

### Proposamena

*Agustinoen eraikina: Auzoari erreferentzia historikoa duen eta Martuteneko ondare arkitektonikoa osatzen duen gune bat itzultzea. “Agustinoen” eraikina auzoarekin lotutako kirol eta kulturaren arloko erabileretarako erabiltzea, hiritarren elkarrekintzarako gune bat bihurtu dadin. Eraikin honi buruzko proposamen zehatzak:*

- Auzoko premiei erantzutea.*
- Eraikin honetako eremu bat hiriaren jarduera batetara xedatzea (Aranzadik interesa agertu zuen bere egunean, edo Musika Eskolak, azken horrek azkenean interesik agertu ez bazuen ere). Horrela, eraikin honekin, eta hiriarekin, auzoaren barneko konexioa landuz, Martutene Donostian integratuko litzateke. Jarduera garrantzitsuren bat bilatzea proposatzen da (pisuzkoa) hiriarentzat ere erreferente bat izan dadin.*

## Euskarari Bultzakada

Euskararen erabilpena bultzatzeko beharra dago auzoan. Gaur egun, Astigarraga eta Hernaniko AEKk klaseak ematen ditu Martutenen, baina dirudienez, ez dira taldeak osatzen, informazioa ez baita bizilagunengana iristen.

### Proposamena

*Auzoan egiten diren ekimen kulturaletan euskarak garrantzia gehiago izatea, kalean egiten diren ekimenetan batez ere. Egin daitezkeen ekimenak:*

- Martuteneko bideak ezagutarazteko txangoak antolatu, euskara erabiliz. Horrela, Martuteneren historia ere ezagutzera emango litzateke euskara bultzatzen den bitartean.*

- Mintzalaguna taldeak antolatu...*

- Euskaltegi-zerbitzuaren informazioa zabaltzea.*

- Auzoan euskaltegi bat izatea, Etxarrienen edo Ikastolan, adibidez.*

### Erantzuna

Auzoan ez dago Udal Euskaltegirik, ekimen pribatu bat baizik, eta ez dirudi egoera hori aldatuko denik. Dena den, euskara ikasteko taldea sortu eta leku aproposa izanez gero, euskaltegiak prest egon ohi dira eskolak emateko auzoan, gela desplazatua izena izan ohi dutena. Horrezaz gain, egun, euskara on line ikas daiteke.

Bestalde, gurasoentzat euskara ikastaro berezituak eskaintzen dira urtero ikastetxeen bitartez: 60 orduko ikastaroak izaten dira, diruz lagunduak, eta horiek

## Partaidetza Bultzatzea

Diagnosticako jarraipen eta proposamenen lan garrantzitsu bat dago, auzoko talde batzuek auzoko premien inguruan egindakoa: bizilagun-elkarteak, talde sustatzaileak eta festa batzordeak.

Gizarte-erakundeen jarduerak indar handia du auzoan.

### Proposamena

*Auzotarrek oso modu positiboan baloratzen dute talde sustatzailearen lana eta harekin jarrai dadila eskatzen dute.*

*Baliabide eta laguntza gehiago eskatzen dituzte auzoko mugimendu eta erakunde horientzat eta horiek garatzen dituzten jarduerentzat: elkarteen egoitzetarako lekuak, bilerak egiteko eta beren hartzaileei zerbitzua eskaintzeko (elikagaien bankua, adibidez).*

*Gune horiek eraikin bakar batean zentralizatzea izango litzateke*

### Erantzuna

Eraikina Eusko Jaurlaritzarena da, eta beraz, edozein jarduketa egin ahal izateko jabearekin hitzartu edo higiezina erosi beharko litzateke lehenengo. Bestalde, eta AHT hirian sartzeak trenbide-zabaleraren erreserbari eragingo dizkion ondorioei dagokienez behin betiko informaziorik jaso ez dugunez, Urumea ibaiaren ertzeko Plan Orokorra etenda dago. Gaur egungo lursailak 15.814,00 m<sup>2</sup>ko azalera du katastro-fitxaren arabera, eta eraikinak, ordea, 7.796,00 m<sup>2</sup>koa.

Hau da, eraikinaren edukia oso zehaztua duen proiektu bat egin beharko litzateke, baita lursail osoa berrio hiritartu behar den ala ez erabaki ere. Gaur egun ezin dira esku-hartze horiek modu zehatzean balioetsi ekonomiaren ikuspegitik, baina jarduketak 12.000.000 € inguru har ditzake, eta beraz, gaur egun ezin helduzko esku-hartzea da ekonomiaren aldetik.

auzoan bertan eskaini daitezke.

Mintzalaguna taldeak antolatu daitezke auzoan Bageraren bitartez, auzotar batzuk animatuz gero. Baita mintzodromoak ere, horren aldeko dinamika piztuz gero.

Auzoko eragileek ekintzak euskaraz antolatuz gero, edo antolatzen diren ekintzetan euskarari dagokion lekua emanez gero, euskararen presentzia izugarri areagotuko litzateke auzoan. Etxarrienek paper garrantzitsua joka dezake horretan, kultur dinamizatzailea den heinean. AEKk, bestalde, Donostian “Iriki Atea” izeneko jarduera du. Bertan hitzaldiak, bisitak eta abar antolatzen ditu, edozein ikasle eta herritarri zuzenduta, eta Martutenen ere antolatzea aztertu daiteke. Euskara Zerbitzua elkarlanean aritzeko prest dago eta, dakizuen bezala, dagoeneko elkarlanean ari da sortu den euskara taldearekin.

*egokiena, Agustinetan, alegia. Bitartean, gaur egun daudenak egokitu daitezke premia horri erantzuteko, Martuteneko Pasealekuko 62-66 zenbakietan dauden etxabe eta pisuak, adibidez.*

### Erantzuna

Azken 7 urte hauetan, talde sustatzailean oinarritu da Udalak Martutenen bultzatu duen partaidetza. Guztion artean, parte hartzearen eredu irekia eraiki dugu: eredu aberatsa eta talde lanean oinarritua izan da, jarrera eta gai asko aztertzeko balio izan duena, eredu egonkorra, konprometitua, planifikatzeko gaitasuna izan duena eta eskenatokiak sortu eta elikatu dituen, mahai gainean izan ditugun proiektuen araberrako batzordeak sortzeko gai izan den eredua.

Udal honen lehentasuna da Loiola, Txomin eta



Martuteneko auzoetako beharrei erantzutea.

Behar horiek lotura estua dute Urumea ibaia bideratzearekin eta GI-131 errepidea bulebar bihurtzearekin.

Proiektuok garrantzizkoak eta konplexuak dira eta, kalitatezko garapen bat lortu ahal izateko, herritarrok eta erakundeok parte hartu beharko dugu, gero eta gehiago, bai une honetan bai etorkizunean.

Partaidetza proiektu traktore horietan oinarrituko da eta, izan talde sustatzailearen izenean edo izan beste motako bateko erakunde baten izenean, konpromisoa hartzen dugu behar bezainbat baliabide bideratzeko, Martuteneko herritarrek izan dezazuen urte hauetan landu dituzuen bertute eta ezaugarrien araberrako partaidetza bat.

Udal gobernuak herritarren partaidetzan oinarrituko du bere jarduna, bere asmoa baita prozesuak, kanalak, guneak eta elkarren artean jarduteko forma berriak zabaltzea lurralde osoan eta udal politika guztietan. Baieztapen horien oinarriak dira gertutasunez jokatzeko, herritarrekin harreman estua izatea, gardentasuna zaintzea eta informazioaren kudeaketa demokratikoa bilatzea, uste baitugu horri guztiari esker konfiantzazko eta ardura partekatuko harreman berriak sortuko direla Udalaren eta donostiarren artean, eta, hain zuzen, udal erakundeak eskura izango dituela bere proposamenak eta erabakiak neurtzeko behar dituen gakoak, bai edukien ikuspuntutik, bai harremanen ikuspuntutik.

Gainera, erakunde honek nahi du bitartekari izatea hiriko 18 auzo eta herrietako partaidetza sozialaren sustapenean. Elkarte eta herri mugimenduen sare autonomo, kritiko, sortzaile, inplikatu, informatu eta zabala indartu nahi dugu eta, horretarako, hainbat bide eskaini.

Partaidetza eta komunikazioko modu berri horien ardatzak izango dira gertutasuna, egonkortasuna eta gardentasuna, guztiok aukera izan dezagun kalitatezko lan kolektiboa garatzeko bai edukietan bai harremanetan, gure auzoetako bizi kalitatea hobetzea helburutzat harturik, beti ere.

Auzo eta herriak Donostia indartzen! ekimenaren batzarretan esan genuen bezala, gai hau guztion artean definitu behar dugu eta definitze prozesuak balio beharko digu helburuak lortzen joateko: elkar ezagutzea, elkar aintzat hartzea, gure elkarteak indartzea, partaide berriak lortzea...

Hortaz, interlokuzioari, elkarte eta herri mugimenduen sustapenari eta elkartearen arteko komunikazioari dagokienez, udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Abian jartzea Udalaren eta auzoetan lan egiten duzuen elkartearen artean harreman egonkor bat egituratzeko prozesua. Martuteneko kasuan, bereziki garrantzizkoa izango da talde sustatzailearen esperientzian oinarritzen den zuen ekarpena.
2. Partaidetzaren alorreko udal teknikari erreferente bat izendatzea. Horren interlokuzio funtzioak hauek izango dira: udal departamentuekin komunikazioa eta informazioa erraztea, proiektu zehatzen inguruan lan-espazioak sustatzea, auzoan kolektiboki sortutako proposamen eta gogoetak udalean bideratzea, eta proposamen eta gogoeta horien jarraipena egitea.

Harremanetarako e-maila: [udala\\_partaidetza@donostia.org](mailto:udala_partaidetza@donostia.org)

3. Proiektu zehatzak suertatzen direnerako, lan kolektiboan parte hartu nahi duten auzokako pertsonen poltsa bat aktibatzea. Poltsa horretan izena ematen dutenek ez dute zertan antolaturik egon behar, ezta elkarteren bateko kide izan behar ere.

4. Auzo bakoitzeko mapa soziala aktibatzen hastea: auzoan ba al dago helburu nagusitzat auzoaren aldeko lana egitea duen elkarterik? Elkarte horiek ba al dute harremanik beren artean? Harremanetan zer hutsune antzematen dira auzoan?

Udal lokalak direla eta, prozedura berrikusten ari gara gaur egun, lokalen lagapena gardentasunez kudeatu nahi baitugu, argia izan dadin. Lan honetan, esfortzu berezia egiten ari gara erreferenteak izan daitezkeen lokalak identifikatzen udal ekipamendurik ez duten auzoetan, elkartearen arteko komunikazioa eta elkarlana hobetze aldera.

Auzoko batzarrean, Martutene pasealekuko etxebizitzez aritu ginen, baina horiek ez daude uzteko moduan, uholdeen arrisku gunean baitaude. Agustinas izeneko eraikina dela eta, momentuz ez dago erabakita zer erabilpen emango zaion. Beraz, balorazio horretan kontuan hartuko da Martuteneko bizilagunen eskaria.

Bestalde, auzo elkarteak badu utzita udal lokal bat Pilareko Andre Mariaren 5ean: uholdearen eraginez sortutako arazoak konponduta daude eta lokala eraberrituta dago gaur egun. Egoitza ahalik eta gehien hornitzeko, ordenagailu bat eta bulegoko altzariak utzi zaizkio elkarteari.





# Hezkuntza Publikoaren Eskaintza Zabalitzea

Hezkuntza: 2-16 urte arteko eskaintza dago, baina aurrera begira DBHrik gabe gera daiteke auzoa, lekuaren arazoagatik eta Astigarragara eramateko arriskuagatik batez ere (dirudienez, Eusko Jaurlaritzak ez du eskola Astigarragara eramateko asmorik egoera ekonomikoaren eraginez).

**Proposamena**  
*DBH auzoan egin ahal izaten jarraitzeko herri-ekimena bultzatzea.*

**Erantzuna**  
Lehenik eta behin, kezkarekin bat egiten dugula adierazi nahi dizuegu. Udal gobernu honen politika, nahiz eta egoera ekonomikoa zaila izan, auzo nortasuna indartu eta auzoko beharrei erantzuteaz gain, espazioei erabilpen egokia ematea da. Hezkuntzari dagokionez, kontuan hartu behar da, sare publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak udal jabegokoak diren bezala, Bigarren Hezkuntzakoak Jaurlaritzak kudeatzen dituela. Arantzazuko Ama ikastolaren egoera berezi samarra da. Izan ere, ikastolak izan dituen garapen eta aldaketen ondorioz, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak udal eraikin batean daude.

Horren aurrean, Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzarekin adostu behar ditu hezkuntzako

gai guztiak, hezkuntzaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena denez gero. Martutene auzoko hezkuntza-eskaintza mantentzen saiatuko gara eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzarekin konpartitzen dugun marko horretan aztertuko dugu gaia.



## Auzoaren Loturak Inguruko Auzo eta Herriekin (Epe Laburrera)

Martutene auzoaren eta aldameneko auzoen artean ez dago konexio segururik, ezta oinarritzko udal-zerbitzuekin ere, auzoari erantzun behar dietela ulertzen bada ere, horiek auzotik kanpo baitaude (anbulatorioa, gizarte-ongizaterako oinarritzko unitatea eta abar).

Era berean, Martuteneko pasealekuak oinezkoen eta bizikleten zirkulazio lasaia galarazten du auzoan bertan.

- Proposamena**
- Martutene eta Loiola auzoen artean oinezko eta bizikletentzako konexio seguru eta irisgarri bat lortzea. Auzoko ekipamenduetara joateko oinarritzko irispide bat egitea (anbulatorioa, Renferen geroalekura...).*
  - Oinezkoentzako irisgarritasun mugatua duten edo irisgarritasunik ez duten puntuak berehala egokitzea (beheratu gabeko zintarriak, aparkaleku irregularrak, eta oinezkoentzako pasabide eta semaforoaren gabezia).*
  - Zorua harrotua duten tartekak asfaltatzea.*
  - Martuteneko zubia: ibilgailu motordunak errei bakar batetik igaro daitezela. Beste erreia oinezko eta bizikletentzat egokitzea.*
  - Martuteneko pasealekuko zubiaren eta espaloiairene artean dagoen tartean espaloiko zorua eta zintarriak berritzea.*

**Erantzuna**  
Martutene auzoko espaloiak nahiko zabalak dira auzoko gune garrantzitsuenetan (Pilarreko kolonia eta Etxarriene) eta gune horien beheratzeek irisgarritasun-

araudia betetzen dute, baita gasolindegiairene inguruan eta Tranbia kalean ere.

Bestalde, egia da etxebizitza-gune nagusi horren eta auzoaren gainerako guneen artean ez dagoela oinezkoentzako ibilbide irisgarriarik, "RENFERen geroalekura" joateko batik bat, honako alderdi hauek erabat baldintzatzen baitute irisgarritasun hori: Urumea ibaiaren gaineko zubiaren zabalera, galtzadak gaur egun jasaten duen trafikoa (27. poligonora eta Astigarragara doazen bideak) eta RENFERen geroalekuaren kokapen altua.

Gainera, zubiaren gaur egungo egituraren eta egoeraren diseinu desagokia dela-eta, ibilgailuen pisu guztia ezin da zubiaren ertzetatik zuzendu, espaloiak haren hegaletan eraikita baitaude.

Bidean egin beharreko aldaketei dagokienez, horien titulartasuna Gipuzkoako Foru Aldundiarena da gaur egun, eta beraz, guk ezin ditugu aldaketa horiek gauzatu. Gainera, Urak erakundearen (Eusko Jaurlaritzak) etorkizunerako proiektu batean Loiola eta Martutene auzoen arteko zubiak birmoldatzea eta aldatzea aurreikusten da. Horrez gain, Txomin berriro urbanizatuko dela eta horrek hainbat aldaketa eragingo dituela hartu behar da kontuan. Horrela, beste erakunde batzuek nahiz Udalak berak etorkizunean egingo dituzten jarduketan bitartez Martutenereen eta Loiolaren arteko loturen egoera hobetzea espero dugu.



**Donostia**  
**parte-hartzailea**